

KARMEL

IX^{GN} URTEA. 1959

GARAGARRILLA-DAGORRILLA

(LARREA · ZORNOTZA)

Eguzkia eta Illargia

Jesukristo, eguzkia lez dogu. Munduko *ergia* Bera dala esan oi da, bizira datorren edozer, batez be gizona, Berak argitzen dau-ta. Egi-egiaz, Kristok bete daroa dirdira bi-ziz giza-adimena; Berak gure biotzetan zir-kiña ezarri ta edozein azi erne-azo; Berak gure gogo-barrenetan be biiztindarra, odo-la, izerdia zaindu ta iraun-azo; Berak gure erimak goi-eskerrez zeru-bidean indartu ta santutu.

Jesukristoren eskumaldean, oso ur, eta Berak daukan baizen aulki ditzikorrean je-sarrita, Andra Maria daukagu. Gizasemeen biotzak daben maitasun-garra ta oneik eski-nitako gurtza, Kristok bakarrik ezeze, Aren ama eta gure ama dan Mariak be artzen ditu. Egi-egitan, ez gara Mariak sortu ta erosiak, Jesukristok sortu ta erosi gindu-zan lez; alan be, bigarren arazo orretan izan eban bere zatia: *Eroskide* dogu Andra Maria be. Zelan? Kristok, gurutzan illik, erdaindu eban guk Aita betikoari zor geun-tana; baiña an zan Andra Maria be, gur-tz-oiñean, oso larritua, eta Arek bere ne-ke-lorrez zelanbait erosi ginduzala esan bear. Auxegaitik dogu *Eroskide*, Jesukris-toren lagun gure erosketan. Andra Maria illargi dala, sarri entzun oi dogu.

Illargiak ez dau eguzkiak laiñako argi-rik; ez da, gaiñera, argi ori berea be, eguz-kiak emona baiño. Eta ba-leiteke gure gau-amandreak laguntasun orren bearrik ez iza-tea, bere bizitza ta gorabereetako. Ederra, alan be, zeru-azpi zear, enparau izar guz-tien erregiña lez dabillenean! Eguzki urrin-duaren ordezko dogu izpi zuri ozkirriz. Be-roni dei ta oles dagioe gautarrak batez be, olerkari, bertsolari, bidazti, maite-mindu ta abar; bera bai dabe ordu illun nasiotan biotzen poz-tresna bakarra.

Maria'ren irudi bikaiña. Illargiaren an-tzera, ez dau onek be bere dauan argirik; izaki utsa da-ta, daukan guztia Jainkoagan-dik artua dau; ez da gaiñera, *osoan* nai ta ezkoa giza-ortzian, bertoko eder-jantzirik garaiena dan arren. Baiña, illargiak gauean lez, ainbat eta ainbat ezaugarri ditu Andra Mariak maitasun-lerroan batez be, gure bio-tzak zorakortu ta dardarzten dauazanak. Maite-ezaugarri ta izenik zoragarri orreita-tik bat karmeldar Lagundiak beretzat dau-kana: *Karmen'go Ama*.

Karmen'go Ama! Ezagun ez yakun zeo-zer sentitzen dogu biotz barruan, esakera au agoz artzean. Amaren maitasun ez-tia, eliz-aize mea, babes guria dogu Karmen'go Ama.